

HERRIZAINGO SAILA

IRAGARKIA, ondorengo zehapen-espeditentei dagokien gora jotzeko errekursoaren ebazen ja-kinarazteko dena.

17510

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

IRAGARKIA, 374/07 administrazioarekiko auzi-errekursoaren administrazio-espidentea bidali egin dela jakinarazteko eta hirugarren interesatuak epatzeko dena.

17516

NEKAZARITZA, ARRANTZA ETA ELIKADURA SAILA

IRAGARKIA, Arrantza eta Akuikultura zuzenda-riak hartutako erabakiak jakinarazteko. Itsas-arrantzari buruzko martxoaren 13ko 6/1998 Legea uestez urratzeagatik hasiera ematen zaie behean zehaztutako zehapen-prozedurei erabaki horien bi-dez.

17516

GOBERNUAREN EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ORDEZKARITZA

IRAGARKIA, 34/07, 44/07, 53/07 eta 55/07 ze-hapen-espeditentei buruzkoa.

17517

Xedapen Orokorrak**JAURLARITZAREN LEHENDAKARITZA****4124**

9/2007 LEGEA, ekainaren 29koa, Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutua sortzekoa.

Eusko Legebiltzarrak ondoko lege hau onartu due-la jakinarazten zaie Euskadiko herritar guztiei:

9/2007 Legea, ekainaren 29koa, Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutua sortzekoa.

ZIOEN ADIERAZPENA

Espainiako Konstituzioaren 149.3 artikuluak agintzen du Konstituzioak espresuki Estatuari esleitzen ez dizkion gaiak autonomia-erkidegoei egokitu dakizkie-keela, bakoitzaren estatutuaren arabera.

Bestalde, Euskal Herriko Autonomia Estatutuaren 10.28 artikuluan ezarritakoaren arabera, Euskal Herriko Autonomia Erkidegoak eskumen esklusiboa du kon-tsumitzaleen eta erabiltzaileen defentsan.

DEPARTAMENTO DE INTERIOR

ANUNCIO por el que se notifica la resolución del recurso de alzada en los siguientes expedientes sancionadores.

17510

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

ANUNCIO de remisión del expediente administrativo del recurso contencioso-administrativo n.º 374/07 y emplazamiento de terceros interesados.

17516

DEPARTAMENTO DE AGRICULTURA, PESCA Y ALIMENTACIÓN

ANUNCIO por el que se notifican los Acuerdos del Director de Pesca y Acuicultura, que inician los procedimientos sancionadores abajo relacionados por presunta infracción a la Ley 6/1998, de 13 de marzo, de Pesca Marítima.

17516

DELEGACIÓN DEL GOBIERNO EN EL PAÍS VASCO

ANUNCIO relativo a los expedientes sancionado-res 34/07, 44/07, 53/07 y 55/07.

17517

Disposiciones Generales**PRESIDENCIA DEL GOBIERNO****4124**

LEY 9/2007, de 29 de junio, de creación de Kontsumobide-Instituto Vasco de Consumo.

Se hace saber a todos los ciudadanos y ciudadanas de Euskadi que el Parlamento Vasco ha aprobado la siguiente Ley:

Ley 9/2007, de 29 de junio, de creación de Kontsumobide-Instituto Vasco de Consumo.

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

El artículo 149.3 de la Constitución española dispone que las materias no atribuidas expresamente por ella al Estado podrán corresponder a las comunidades autónomas, en virtud de sus respectivos estatutos.

Por su parte, el artículo 10.28 del Estatuto de Autonomía del País Vasco atribuye la competencia exclusiva en defensa de la persona consumidora y usuaria a la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Kontsumitzaleen eta Erabiltzaileen Estatutua Onesten duen 6/2003 Legea da gure Autonomia Erkidegoko lege-esparra kontsumitzaleen eta erabiltzaileen defentsan, segurtasunean, osasunean eta interes ekonomikoetan eragina duten alderdi guztiak arautzeko.

Kontsumitzaleak aldezteak eta babesteak gero eta gehiago eskatzen du tresna bizi eta eraginkorrik edukitzea, beharrizanei berehalako erantzuna eman ahal izateko eta, oso bereziki, gatazken konponbidean eta prebentzioan jardun ahal izateko.

Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutua sortzeak erantzuna ematen die herriarrek beren transakzio ekonomikoetan babes handiagoa edukitzeko egin-dako eskaerei, zeren produktu eta zerbitzuen erosketak kontsumitzale eta erabiltzaileei gero eta informazio, prestakuntza eta babes handiagoa ematea galdegiten baitu. Alde horretatik, erakunde autonomo hori sortzeak indartu egiten ditu kontsumitzale eta erabiltzaileei kontsumitzeko orduan sortzen zaizkien gatazkei dagokionez aholkuak eta konponbideak emateko gaitasunak eta ahalmenak, era horretako eskaerak gero eta handiagoak baitira gizartearen.

Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutua sortzearekin, handitu egingo da Eusko Jaurlaritzan Autonomia Erkidegoko kontsumo-politika planifikatzeko eta egikaritzeko ardura duen atalaren autonomia, indartu egingo baitira hala atal horren jokaera-ahalmena no-la atalaren autoantolaketarako aukerak, berezko nortasun juridikoa eta jarduteko gaitasun osoa emanez. Horren ondorioa da ezen bai Eusko Jaurlaritzaren aldetik bai gizartearen aldetik argi eta garbi agertuko dela Kontsumobideri dagokiola, erakunde gisa, kontsumitzaleei babes, informazioa eta prestakuntza orain baino intentsitate eta eraginkortasun handiagoarekin emateko ardura.

Beste alde batetik, kontsumoaren arloan jorratu beharreko gaien aniztasuna kontuan hartuta (banka, telekomunikazioak, garraioa, etxez etxeko zerbitzuak, etxebizitza, era guztietako produktuak, eta abar), komeniarria da Eusko Jaurlaritzaren sailetatik urrun da-goen erakunde bat sortzea. Kontsumoaren gaia bere zeharkakotasunagatik Administratzio autonomikoko sail guztiekin lotuta egoteak justifikatu egiten du, gainera, sail horietatik independentea izatea; betiere, ordea, erabat bermatuko da harreman-maila handiena duten sailekin koordinatzea, sail horiei ordezkaritza emanez Kontsumoko Euskal Institutuaren Zuzendaritza Kontseiluan.

Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutuak sarrera emango die bere gobernu-organo gorenean (Zuzendaritza Kontseilua) produktu eta zerbitzuen eskuraketan parte hartzen duten gizarte-eragile guztiei: inplikatutako Administratzio publikoak, kontsumitzaleen elkartek, enpresariak, eta abar. Horrela jokatuta, posible egingo da institutuaren baitan elkarrekin bizitzea

La Ley 6/2003, por la que se crea el Estatuto de las Personas Consumidoras y Usuarias, es el marco de regulación en nuestra Comunidad en lo referido a todos los aspectos que inciden en la defensa de las personas consumidoras y usuarias, su seguridad, su salud y sus intereses económicos.

La defensa y protección de las personas consumidoras requieren cada vez más que dispongamos de instrumentos ágiles y eficaces, que den una respuesta inmediata a las necesidades y que actúen, muy especialmente, en el campo de la prevención y la resolución de conflictos.

La creación de Kontsumobide-Instituto Vasco de Consumo materializa las demandas sociales para dotar de mayor grado de protección a la ciudadanía en sus transacciones económicas, dado que la compra de productos y servicios requiere una información, formación y protección cada vez mayor de las personas consumidoras y usuarias. A este respecto, la creación de este organismo autónomo supone un reforzamiento de las capacidades y potencialidades para atender las exigencias sociales cada vez mayores para asesorar y encauzar los conflictos que les surgen a las personas consumidoras y usuarias en el acto de consumir.

Kontsumobide-Instituto Vasco de Consumo supondrá un incremento en la autonomía del área encargada dentro del Gobierno Vasco de planificar y ejecutar la política de consumo en la Comunidad Autónoma, de manera que se potencia su capacidad de maniobra, así como sus posibilidades de autoorganización, dotándole de personalidad jurídica propia y plena capacidad de obrar. Esto conlleva que, tanto de cara al propio Gobierno Vasco como hacia la sociedad, Kontsumobide se va a visualizar claramente como el organismo encargado de proteger y de informar y formar a las personas consumidoras con un nivel de intensidad y eficacia mayor al actual.

Por otra parte, la diversidad de temáticas a abordar a través de consumo (banca, telecomunicaciones, transportes, servicios a domicilio, vivienda, productos de toda índole, etcétera) aconseja también la creación de un organismo propio alejado de los departamentos del Gobierno Vasco. La vinculación del consumo, por su carácter transversal, con todas las áreas de la Administración autonómica justifica de manera especial su carácter independiente con respecto a las áreas del Gobierno, si bien queda plenamente garantizada la coordinación con las que guarda mayor nivel de relación a través de su representación en el Consejo de Dirección de Kontsumobide-Instituto Vasco de Consumo.

Kontsumobide-Instituto Vasco de Consumo va a reunir en su máximo órgano de gobierno (Consejo de Dirección) a la totalidad de los agentes sociales que intervienen en la adquisición de productos y servicios: administraciones públicas implicadas, asociaciones de consumidores, empresarios, etcétera. De este modo se logra que en su seno convivan las diferentes sen-

kontsumo-politikaren ildo nagusiak planifikatzeko dauden iritzi ezberdinak.

Azkenik, beharrezkotzat jo da indargabetzea 6/2003 Legearen 67. artikulua, Euskadiko Kontsumoko Koordinazio Batzordea sortzen duena Eusko Jaurlaritzako sailen barne-koordinaziorako organoa izateko. Horren arrazoia da, lehen adierazi denez, Kontsumobideren gobernu-organo goreneari lekua egin zaiela kontsumitzai-leak babesteko politiketan modurik zuzenean inplikatuta inplikatuta dauden sailei.

1. artikulua.— Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutua sortzea.

1.— Honen bidez Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutua sortzen da, Jaurlaritzan kontsumoaren arloko eskumena duen sailera atxikitako erakunde autonomo gisa.

2.— Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutuak berezko nortasun juridikoa eta autonomia administrativo eta ekonomikoa edukiko ditu, bai eta jarduteko gaitasun osoa ere bere helburuak betetze aldera.

3.— Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutuak jarraitu beharreko arauak lege hau, legea garatuko duten xedapenak eta ezargarri zaizkion Administrazio Zuzenbideko gainerako xedapenak izango dira.

2. artikulua.— Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutuaren egoitza.

1.— Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutuak Eusko Jaurlaritzaren egoitza nagusia dagoen hirian izango du bere kokalekua, eta Euskal Autonomia Erkidegoko beste zenbait herrian bulegoak sortu eta bere jarduerak aurrera eraman ahal izango ditu.

2.— Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutuak lurraldleen ikuspegitik deskontzentratu egin behar du bere administrazio-jarduera, edo atxikita dagoen saileko lurralte-zerbitzuen bidez, edo, bestela, bere bulegoak sortuz hiru lurralte historikoetan. Lehenengo kasuan, aipatutako lurralte-zerbitzu horiek institutu-k zuzendaritzaren menpean egongo dira funtzionalki kontsumo-gaietako jarduerei dagokienez.

3. artikulua.— Helburuak eta eskumenak.

1.— Kontsumitzaleak eta erabiltzaileak aldeztearen eta babestearen arloan Jaurlaritzaren politikak zehaztea, planifikatzea, bultzatzea eta betearaztea dira Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutuaren helburuak.

2.— Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutuari izendatutako eskumenak eta eginkizunak, hain zuzen, Kontsumitzaleen eta Erabiltzaileen Estatutuaren abenduaren 22ko 6/2003 Legearen arabera kontsumoaren arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako organoari dagozkion guztiak izango dira. Salbuespena izango dira, ordea, Gobernu Kontseiluari edo Eusko Jaurlaritzan kontsumoaren arloko eskumena duen saileko titularrari dagozkienak.

sibilidades existentes para planificar las líneas maestras de la política de consumo.

Finalmente, se ha considerado necesario derogar el artículo 67 de la Ley 6/2003, por el que se crea la Comisión Coordinadora de Consumo de Euskadi como órgano de coordinación interna de los diversos departamentos del Gobierno Vasco, dado que, como se ha expresado con anterioridad, se ha dado cabida dentro del máximo órgano de gobierno de Kontsumobide-Instituto Vasco de Consumo a aquellos departamentos más directamente implicados en las políticas de protección de las personas consumidoras y usuarias.

Artículo 1.— Creación de Kontsumobide-Instituto Vasco de Consumo.

1.— Se crea Kontsumobide-Instituto Vasco de Consumo, como un organismo autónomo adscrito al departamento del Gobierno Vasco competente en materia de consumo.

2.— Kontsumobide-Instituto Vasco de Consumo actúa con personalidad jurídica propia, autonomía administrativa y económica y plena capacidad de obrar para el cumplimiento de sus objetivos.

3.— Kontsumobide-Instituto Vasco de Consumo se somete a lo que establezca esta ley, las disposiciones que lo desarrollen y el resto de disposiciones de Derecho administrativo que le son aplicables.

Artículo 2.— Sede de Kontsumobide-Instituto Vasco de Consumo.

1.— Kontsumobide-Instituto Vasco de Consumo estará situado en la ciudad donde radique la sede central del Gobierno Vasco, y podrá crear oficinas y desarrollar sus actividades en otras localidades de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

2.— Kontsumobide-Instituto Vasco de Consumo, debe desconcentrar territorialmente su actuación administrativa, bien mediante los servicios territoriales del departamento al que está adscrito, o bien mediante la creación de oficinas propias en los distintos territorios históricos. En el primer caso, dichos servicios territoriales dependerán funcionalmente de la dirección del instituto en cuanto a las actuaciones en materia de consumo.

Artículo 3.— Objetivos y competencias.

1.— Los objetivos de Kontsumobide-Instituto Vasco de Consumo son definir, planificar, impulsar y ejecutar las políticas del Gobierno Vasco en materia de defensa y protección de las personas consumidoras y usuarias.

2.— Las competencias y funciones asignadas a Kontsumobide-Instituto Vasco de Consumo son todas las que corresponden al órgano del Gobierno Vasco competente en materia de consumo de acuerdo con la Ley 6/2003, de 22 de diciembre, de Estatuto de las Personas Consumidoras y Usuarias, salvo aquellas atribuidas al Consejo de Gobierno o al titular del departamento del Gobierno Vasco competente en materia de consumo.

4. artikulua.- Eginkizunak.

1.– Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutoak bere helburuak betetzeko bere gain hartzen dituen eginkizunak, besteak beste, honako hauek dira:

a) Eskubideei eta eskubideak erabiltzeko moduari buruz orientazioa, prestakuntza eta informazioa ematea kontsumitzaleei eta erabiltzaileei, eta eskubide horiek ezagutzera ematea, kontuan izan eta errespetu ditzaten merkatuan parte hartzen duten guztiak, bai eta ondasun eta zerbitzuei dagokienez eskubideetan eragina izan dezaketen guztiak ere. Horretan guztian, arreta berezia eskainiko zaie bereziki babestutako taldeei, berariazko beharrizanak baitituzte.

b) Kontsumo-dinamiken ebaluazioa eta beharrezko azterketak sustatzea eta egitea, kontsumitzaleei euren behar eta exijentzieta ongien moldatzen diren produktuak eta zerbitzuak aukeratzen lagunduko dieten prozedurak eta tresnak zehazteko xedez.

c) Kontsumitzaleen eta erabiltzaileen eskuera jarritako produktuek eta zerbitzuek beharrezko informazioa eskaintzen dutela zaintza, legearen arabera eska daitezkeen segurtasun-mailak lortzea, eta bereziki iruzurra, okerrera eraman gaitzakeen edo osoa ez den informazioa, publizitate iruzurtia eta abusuzko klausulak erabiltzea saihesteko prebentzio-kanpainak egitea, horretarako beharrezko eta nahitaezko klausulak erantsita.

d) Kontsumitzaleak eta erabiltzaileak aldezteko eta babesteko elkarteen eta erakundeen garapena indartzea eta sustatzea, eta aktiboki eta diruz lagunduz lan egitea elkarrekin aholkularitz-, defentsa- eta informacion-planetan, bereziki behar espezifikoak dituzten pertsonei dagokienez.

e) Gizartearen eta ekologiaren ikuspegitik iraunkorra den kontsumoa bultzatzea, eta bereziki ingurumenia errespetatzen duten zerbitzu eta produktuena.

f) Gazteak arduraz kontsumitzeko ohituretan hezi daitezen sustatzea. Horretarako, erakunde eskudunei proposatuko zaie kontsumorako heziketa-programak jartzea irakaskuntzako maila guztieta.

g) Produktu ekologikoen kontsumoa sustatzea eta bidezko merkataritzatik eta merkataritza solidarioitik iritsitako produktuen eskaintza bultzatzea.

h) Lankidetza-itunak eta -akordioak sinatzea prestakuntzaren eta aholkularitzaren arloan jarduera-sektore ekonomiko bakoitzean ordezkaritzarik handiena duten enpresen eta profesionalen elkarrekin; oso bereziki merkataritza-enpresetara eta kontsumitzale eta erabiltzaileengana zuzenduko dira, institutuaren eginkizunen eta helburuen esparruan.

i) Administrazio publiko guztiekin harremanetan jartzea eta elkarlanean aritzea, kontsumitzaleen eta era-

Artículo 4.– Funciones.

1.– Entre las funciones asumidas por Kontsumobide-Instituto Vasco de Consumo para el cumplimiento de sus objetivos se encuentran las siguientes:

a) Orientar, formar e informar a las personas consumidoras y usuarias sobre sus derechos y la forma de ejercerlos y difundir su conocimiento, a fin de que sean tenidos en cuenta y respetados por todos aquellos que intervengan en el mercado, así como por aquellos a los que dichos derechos puedan afectar directa e indirectamente en relación con los bienes y servicios. Todo ello con especial atención a los colectivos especialmente protegidos, con necesidades específicas.

b) Promover y llevar a cabo los estudios necesarios y la evaluación de las dinámicas de consumo, con el objetivo de fijar los instrumentos y los procedimientos que permitan a las personas consumidoras y usuarias elegir mejor los productos y servicios más adecuados a sus necesidades y exigencias.

c) Velar por que los productos y servicios puestos a disposición de las personas consumidoras y usuarias incorporen la información, conseguir los niveles de seguridad legalmente exigibles y establecer campañas de prevención dirigidas especialmente a evitar el fraude, la información que induzca a error o esté incompleta, la publicidad engañosa y la utilización de cláusulas abusivas, incorporando cláusulas necesarias y obligatorias.

d) Potenciar y fomentar el desarrollo de las asociaciones y entidades de defensa y protección de las personas consumidoras y usuarias, y colaborar activa y económicamente con las asociaciones en el ejercicio de las funciones de asesoramiento, defensa e información, especialmente respecto a las personas con necesidades específicas.

e) Fomentar las prácticas de un consumo socialmente y ecológicamente sostenible, en especial el consumo de productos y servicios respetuosos con el medio ambiente.

f) Promover la educación de los jóvenes en los hábitos del consumo responsable, proponiendo a los organismos competentes la adopción de programas de educación para el consumo en los distintos grados de la enseñanza.

g) Fomentar el consumo de productos ecológicos y promover la oferta de productos provenientes del comercio justo y solidario.

h) Firmar acuerdos y convenios de colaboración en materia de formación y asesoramiento con las organizaciones empresariales y profesionales más representativas de cada sector de actividad económica, dirigidos de manera especial a las empresas comerciales y a las personas consumidoras y usuarias, en el ámbito de los objetivos y las funciones del instituto.

i) Relacionarse y cooperar con todas las administraciones públicas para avanzar en la mejora de los dere-

biltzaileen eskubideak eta babesia hobetzeko bidean aurrera egiteko.

j) Kontsumoaren arloan eskumenak erabiltzen dituzten udal-administrazioekin lankidetzan aritzea, kontsumitaileen informaziorako udal-bulegoak hedatzea sustatzea, behar duten guztian aholkuak ematea euren eginkizunak hobeto bete ditzaten, eta lankidetza-itunak sinatzea beren helburuak betetzeko ahalik eta teknikarik eta materialik onenen hornikuntza konpartitze aldera.

k) Kontsumo-gaietan gatazkak konpontzeko tresna gisa bitartekaritza eta arbitrajea bultzatzea, Euskadiko Arbitraje Batzordearen funtzionamendua antolatzu.

l) Kontsumoaren arloan ikuskaritzaren eta zigorren esparruko eskumenak erabiltzea, indarrean dauden xedapenen arabera.

m) Kontsumitzaleek eta erabiltzaileek legearen babes eraginkorra izan dezaten bultzatzea, beharrezko ekintza judizialak abiaraziz eta auzietan aurkeztuz ballestu behar diren eskubideen garrantzia dela-eta edo sortu duten alarma soziala dela-eta arreta berezia merezutu gaiei dagozkienean.

n) Xedapen-proposamenak prestatzea kontsumitzale eta erabiltzaileengan eragina izan dezaketen orotariko gaiei buruz, eta informazio ematea beste administrazio batzuek esparru horretan egiten dituztenei buruz.

ñ) Kontsumitzaleak eta erabiltzaileak aldezteari eta babesteari dagokionez aginduko zaizkion beste eginkizun guztiek betetzea.

o) Nahitaezko txostena egitea kontsumitzaleei eta erabiltzaileei eragiten dieten edo eragin diezaieketen xedapen eta arau guztieei buruz.

2.- 1. paragrafoan aipatutako eginkizunetan Euskal Autonomia Erkidegoko beste administrazio edo erakunde batzuekin batera jardun behar denean, eginkizun horiek espezialitate, subsidiarietasun, lankidetza, koordinazio eta ekintza-batasunaren irizpideei lotuta bete behar dira.

3.- Jateko produktuen etiketatzea kontrolatzeko eginkizunei dagokienez, gaian eskuduna den sailarekin eta lan hori egin dezaketen enpresa eta erakunde homologatuekin koordinatuta bete behar dira eginkizunok.

5. artikulua.— Gobernu-organoak.

Honako hauek dira Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutuaren gobernu-organoak:

- a) Lehendakaria.
- b) Zuzendaritza Kontseilua.
- c) Zuzendaria.

chos y la protección de las personas consumidoras y usuarias.

j) Cooperar con las administraciones locales que ejerzan competencias en materia de consumo, potenciar el despliegue de las oficinas municipales de información del consumidor, asesorarles en todo lo que sea necesario para el mejor ejercicio de las funciones, y suscribir convenios de colaboración para compartir la dotación de las mejores técnicas y materiales para el cumplimiento de sus finalidades.

k) Potenciar la mediación y el arbitraje como herramientas para la resolución de conflictos en materia de consumo, organizando el funcionamiento de la Junta Arbitral de Euskadi.

l) Ejercer las competencias de inspección y sanción en el ámbito del consumo, de acuerdo con las disposiciones vigentes.

m) Impulsar la protección legal efectiva de las personas consumidoras y usuarias, iniciando las acciones judiciales pertinentes y personándose en las que se refieren a asuntos que merecen especial atención por razón de la trascendencia de los derechos que hay que proteger o de la alarma social que generan.

n) Elaborar las propuestas de disposiciones relacionadas con todas las materias que pueden afectar a las personas consumidoras y usuarias, e informar sobre las que hagan otras administraciones en este ámbito.

ñ) Ejercer todas las demás funciones que le sean encomendadas con relación a la protección y defensa de las personas consumidoras y usuarias.

o) Emitir informe preceptivo a todas aquellas disposiciones y normas que afecten o puedan afectar a las personas consumidoras y usuarias.

2.- Cuando las funciones a que se refiere el apartado 1 sean concurrentes con las de otras administraciones u organismos de la Comunidad Autónoma de Euskadi, deben ejercerse con sujeción a los principios de especialidad, subsidiariedad, cooperación, coordinación y unidad de acción.

3.- Por lo que respecta a las funciones referidas al control del etiquetado de los productos alimentarios, éstas deben llevarse a cabo en coordinación con el departamento competente en la materia y con las empresas y entidades homologadas capacitadas para llevar adelante dicha tarea.

Artículo 5.- Órganos de gobierno.

Los órganos de gobierno de Kontsumobide-Instituto Vasco de Consumo son:

- a) La Presidencia.
- b) El Consejo de Dirección.
- c) La Dirección.

6. artikulua.— Lehendakaria.

1.— Kontsumo-gaietan eskuduna den saileko titulatura izango da Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutuaren lehendakaria.

2.— Honako hauek dira lehendakariaren eginkizunak:

a) Institutua zuzentzea eta institutuaren ordezkari gorenak izatea.

b) Zuzendaritza Kontseiluaren bilerak deitzea eta bilera mahaiburu izatea.

c) Institutuari izendatutako helburuak betetzen direla zaintzea.

d) Jaurlaritzari eta Legebiltzarrari, hala egitea eska-
tzen zaionean, institutuak burututako ekintzen berri
ematea.

e) Zuzendaritza Kontseiluari plan orokorrak eta jar-
duera-programak proposatzea, baita beste zenbait era-
kunderekin adostu beharreko lankidetza-hitzarmenak
ere.

7. artikulua.— Zuzendaritza Kontseilua.

1.— Honako hauek izango dira Zuzendaritza Kon-
tseiluko kideak:

a) Lehendakaria.

b) Zuzendaria.

c) Eusko Jaurlaritzan etxebizitza, nekazaritza, osa-
sun, ingurune, hezkuntza eta merkataritzako gaietan es-
kudunak diren sailak ordezkatuko dituzten sei kide.

d) Ordezkartzarik handiena duten kontsumitzaileen
eta erabiltzaileen elkartek ordezkatuko dituzten hiru
kide, elkarrekin eurek proposatuta.

e) Udal Administrazioa ordezkatuko duten bi kide,
Eudelek proposatuta.

f) Eusko Legebiltzarra ordezkatuko duten bi kide,
Legebiltzarrak berak hautatuta.

g) Ordezkartzarik handiena duten enpresari-elkar-
teak ordezkatuko dituen kide bat, elkarrekin eurek pro-
posatuta.

h) Euskadiko Merkataritza, Industria eta Nabigazio
ganbera ofizialak ordezkatuko dituen kide bat, ganbe-
rek eurek proposatuta.

i) Ordezkartzarik handiena duten sindikatuak or-
dezkatuko dituen kide bat, sindikatuek eurek txanda-
ka proposatuta.

j) Euskadiko Kooperatiben Konfederazioa ordezk-
atuko duen kide bat, konfederazioak berak proposatuta.

k) Euskal Autonomia Erkidegoko Kontsumoko le-
hendakaria.

l) Idazkaria. Hitza izango du, baina ez botorik.

Artículo 6.— La Presidencia.

1.— La Presidencia de Kontsumobide-Instituto Vasco de Consumo recaerá en el titular del departamento competente en materia de consumo o en la persona que designe.

2.— Las funciones de la Presidencia son:

a) Ejercer la más alta representación y la máxima dirección del instituto.

b) Convocar y presidir las reuniones del Consejo de Dirección.

c) Velar por el cumplimiento de los objetivos asignados al instituto.

d) Informar al Gobierno y al Parlamento, cuando le sea requerido, de las actuaciones llevadas a cabo por el instituto.

e) Proponer al Consejo de Dirección los planes generales y los programas de actuación, así como los convenios de colaboración y cooperación que sea preciso establecer con otros organismos y entidades.

Artículo 7.— El Consejo de Dirección.

1.— El Consejo de Dirección está formado por:

a) El presidente o presidenta.

b) El director o directora.

c) Seis vocales en representación de los departamentos del Gobierno Vasco competentes en materia de vivienda, agricultura, sanidad, medio ambiente, educación y comercio.

d) Tres vocales en representación de las organizaciones de personas consumidoras y usuarias más representativas, propuestos por ellas.

e) Dos vocales en representación de la Administración local, propuestos por Eudel.

f) Dos vocales en representación del Parlamento Vasco y elegidos por él.

g) Un vocal en representación de las organizaciones empresariales más representativas, propuesto por ellas.

h) Un vocal en representación de las cámaras oficiales de Comercio, Industria y Navegación de Euskadi, propuesto por ellas.

i) Un vocal en representación de las organizaciones sindicales más representativas, propuesto por ellas en turno rotatorio.

j) Un vocal en representación de la Confederación de Cooperativas de Euskadi, propuesto por ella.

k) El presidente o presidenta de la Junta Arbitral de Consumo de Euskadi.

l) El secretario o secretaria, que actúa con voz y sin voto.

2.- Zuzendaritza Kontseiluko kideen izendapena ebaZen-bidez onartuko du kontsumo-gaietan eskuduna den saileko titularrak.

8. artikulua.- Zuzendaritza Kontseiluaren eginkizunak.

1.- Ondoko hauek dira Zuzendaritza Kontseiluaren eginkizunak:

- a) Barne-araudia onestea.
- b) Urteko jarduera-programak onestea eta haien jarrapena egitea.
- c) Institutuaren aurrekontuen aurreproiektuak onestea.
- d) Urteko txostenak eta kontuak onestea.
- e) Kontsumitzaleak eta erabiltzaileak aldezteko eta babesteko politikarekin zerikusia duten gai guztiak eztabaidatzea, lehendakariaren, zuzendariaren edo kontseiluko kideen ekimenez.
- f) Informazioa jasotzea institutuak bultzatutako era-baki-proposamen orokorrein buruz, eta proposamen horiek eztabaidatzeari.
- g) Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutuaren Zuzendaritza Kontseiluak lantalde iraunkorrik edo aldi baterakoak sortu ahal izango ditu, bai eta erakunde aholku-emaileak eta sailen arteko batzordeak sustatu ere, kontsumitzaleen babesarekin zerikusia duten gaiak aztertzeko eta haien inguruan proposamenak egiteko. Lantalde eta organo horien osaera, eginkizunak eta bilkura-erregimena Zuzendaritza Kontseiluak zehaztu beharko ditu kasu bakoitzean.

2.- Zuzendaritza Kontseilua lehendakariak deituko du, bere ekimenez edo kontseiluko kideen bosten batetek hala eskatuta.

3.- Zuzendaritza Kontseilua urtean bi aldiz elkartuko da gutxienez, eta orobat kontseiluko kideen bosten batek hala eskatzen duenean ere.

4.- Ohiko bilkurak eta ezohiko bilkurak deitzeko prozedura, presentzia-quoruma eta erabakiak hartzeko beharreko gehiengoak barne-araudian ezarri beharko dira.

9. artikulua.- Zuzendarria.

1.- Honako hauek dira zuzendarriaren eginkizunak:

a) Institutua zuzentzea eta Zuzendaritza Kontseiluaren akordioak betearaztea eta egikaritzea.

b) Erakundearen eta bere batzorde eta lantaldeen jarduerak bultzatzea eta gainbegiratzea.

c) Merkatu-diziplinari eta kontsumitzaleen eta erabiltzaileen defentsari buruzko arauketa aplikatzen dela kontrolatzeko mekanismoak zuzentzea, antolatzea, planifikatzea, koordinatzea eta programatzea, eta gatazkak arbitraje bidez ebaZeko mekanismoak programatzea.

2.- El nombramiento de los miembros del Consejo de Dirección se efectúa por resolución del titular del departamento competente en materia de consumo.

Artículo 8.- Funciones del Consejo de Dirección.

1.- Las funciones del Consejo de Dirección son:

- a) Aprobar el reglamento de régimen interior.
- b) Aprobar los programas de actuación anuales y efectuar su seguimiento.
- c) Aprobar los anteproyectos de presupuestos del instituto.
- d) Aprobar las cuentas y la memoria anuales.
- e) Debatir todas las cuestiones relacionadas con la política de defensa y protección de las personas consumidoras y usuarias, por iniciativa de la presidencia, de la dirección o de los miembros del consejo.
- f) Ser informado sobre las propuestas de disposiciones de carácter general impulsadas por el instituto y debatirlas.
- g) El Consejo de Dirección de Kontsumobide-Instituto Vasco de Consumo podrá crear grupos de trabajo temporal o permanente e impulsar la creación de órganos asesores y consultivos y comisiones interdepartamentales, con la finalidad de estudiar cuestiones y formular propuestas relacionadas con la protección de la persona consumidora. La composición, funciones y régimen de sesiones deberán ser especificados en cada caso por el Consejo de Dirección.

2.- El Consejo de Dirección es convocado por la Presidencia, a iniciativa propia o cuando lo solicita una quinta parte de sus miembros.

3.- El Consejo de Dirección se reúne por lo menos dos veces al año y cuando lo pide una quinta parte de sus miembros.

4.- El procedimiento para la convocatoria de las sesiones ordinarias y extraordinarias, los quórum de asistencia y las mayorías necesarias para la toma de decisiones deben establecerse por el reglamento de régimen interior.

Artículo 9.- La Dirección.

1.- Las funciones de la Dirección son:

- a) Dirigir el instituto y hacer cumplir y ejecutar los acuerdos del Consejo de Dirección.
- b) Impulsar y supervisar las actuaciones del organismo y de sus comisiones y ponencias.
- c) Dirigir, ordenar, planificar, coordinar y programar los mecanismos de control de la aplicación de la normativa sobre disciplina del mercado y defensa de las personas consumidoras y usuarias, y programar los mecanismos de resolución arbitral de conflictos.

d) Xedapen orokorrak egin daitezen sustatzea, kontsumitaileen eta erabiltzaileen eskubideak eta interesak orientatzeko eta defenditzeko.

e) Institutuaren aurrekontuen aurreproiektuak egitea eta institutuaren ekintzei buruzko urteko oroitidazkia prestatzea.

f) Errekurtso ekonomikoak administratzea eta kudeatzea, eta gastuak eta ordainketak agintzea eta baimentzea.

g) Institutuko pertsonalaren zuzendari nagusi gisa jardutea.

h) Kontsumitaileen eta Erabiltzaileen Estatutuaren abenduaren 22ko 6/2003 Legearen 63.1 artikuluaren arabera kontsumo arloko eskumenak dituen zuzendarriari zegozkion administrazio-zigorak ezartzea.

i) Institutuaren ohiko ordezkaritza legala, judiziala nahiz estrajudiciala.

j) Lehendakariak eskuordetutako bestelako eginkizunak, eta indarrean dauden xedapenek izendatzen dizioten eginkizunak.

k) Egindako ekintza eta jardueren berri ematea Zuzendaritza Kontseiluari.

2.– Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutuaren zuzendaria maila organikoa zuzendariaarena da, eta Jaurlaritzak izendatuko du, kontsumo-gaietan eskuuduna den saileko titularrak proposatuta.

10. artikulua.– Idazkaria.

Zuzendaritza Kontseiluko idazkari-lana institutuko funtzionario batek egingo du, eta lehendakariak izendatuko du zuzendariaik proposatuta.

11. artikulua.– Egitura organikoa.

Jaurlaritzak, kontsumo-gaietan eskuuduna den saileko titularrak proposatuta, dekretuz finkatu behar ditu Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutuaren egitura eta antolaketa, 3. artikuluan ezarritako eginkizunak bete ahal izateko.

Egitura horrek modu egokian erantzun beharreko lan-arloak, gutxienez, honako hauek izango dira:

a) Konsulta eta bitartekaritzen arreta.

b) Merkatuaren kontrola (ikuskaritza-kanpainak eta ziurtasunik gabeko produktuak).

c) Informazioa eta prestakuntza.

d) Laguntza juridikoa.

e) Bitartekaritza eta arbitrajea.

f) Aurrekontuak, kontratazioa eta pertsonala.

g) Plangintza, azterlanak eta dokumentazioa.

d) Impulsar la elaboración de disposiciones de carácter general dirigidas a la orientación y defensa de los derechos e intereses de las personas consumidoras y usuarias.

e) Elaborar los anteproyectos de presupuestos del instituto y preparar la memoria anual relativa a las actividades del instituto.

f) Administrar y gestionar los recursos económicos, así como ordenar y autorizar gastos y pagos.

g) Ejercer la dirección superior del personal del instituto.

h) Imponer las sanciones administrativas que correspondían al director o directora competente en materia de consumo de acuerdo con el artículo 63.1 de la Ley 6/2003, de 22 de diciembre, de Estatuto de las Personas Consumidoras y Usuarias.

i) La representación legal ordinaria del instituto, tanto judicial como extrajudicial.

j) Ejercer cualquier otra función delegada por la Presidencia y las que le atribuyan las disposiciones vigentes.

k) Dar cuenta ante el Consejo de Dirección de las acciones y actividades realizadas.

2.– El director o directora de Kontsumobide-Instituto Vasco de Consumo tiene rango orgánico de director, y es nombrado por el Gobierno a propuesta del titular del departamento competente en materia de consumo.

Artículo 10.– La Secretaría.

Actúa como secretario o secretaria del Consejo de Dirección una persona funcionaria del instituto, designada por la Presidencia a propuesta de la Dirección.

Artículo 11.– Estructuración orgánica.

El Gobierno, a propuesta del titular del departamento competente en materia de consumo, debe determinar por decreto la estructura y organización de Kontsumobide-Instituto Vasco de Consumo, con el objetivo de atender a las funciones que establece el artículo 3.

Dicha estructura deberá atender adecuadamente, como mínimo, a las siguientes áreas operativas:

a) Atención de consultas y reclamaciones.

b) Control de mercado (campañas de inspección y productos inseguros).

c) Información y formación.

d) Asesoría jurídica.

e) Mediación y arbitraje.

f) Presupuestos, contratación y personal.

g) Planificación, estudios y documentación.

12. artikulua.— Pertsonala.

1.— Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutuak funtzionatzeko behar dituen lan-kontratuko langileak eta funtzionarioak izan behar ditu.

2.— Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutuко pertsonala Euskadiko Autonomia Erkidegoko funtzio publikoaren legeriak ezartzen duenaren arabera atxikiko zaio institutuari.

3.— Nolanahi ere, ahalmen publikoak erabiltzea eskatzen duten lanpostuak funtzionarioentzat gordeko dira.

13. artikulua.— Baliabide ekonomikoak.

1.— Honako baliabide hauek izango ditu Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutuak funtzionatzeko:

a) Urtean Euskadiko Autonomia Erkidegoko aurrekontuen kargura finkatzen diren diru-izendapenak.

b) Bere helburuak betetzeko Estatuko edo Europa-ko funtsetatik iristen zaizkion diru-ekarpenak.

c) Bere jardueragatik legez ezarritako tasak eta gainerako diru-sarrera publikoak.

d) Bere alde emandako dohaintzak, ekarpenak eta diru-laguntzak.

e) Atxikitzen zaizkion eta bere eginkizunak betetzean eskuratzentzu dituen ondasunen errendimenduak.

f) Egiten dituen hitzarmenengatik eta institutuaren jarduerengatik jaso ditzakeen kontraprestazioak.

g) Legezko eta araudizko xedapenen arabera dago-kion beste edozein baliabide.

2.— Merkatu-diziplinaren eta kontsumitzaleen eta erabiltzaileen defentsaren arloan ezarritako zigorren bidez eskuratutako dirua kontsumitzaleak eta erabiltzaleak aldezteko jardueretara bideratu beharko da osorik.

14. artikulua.— Ondare- eta kontratazio-erregimen-a.

1.— Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutuaren ondareari eta kontratazioari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoko ondareari buruzko legedia eta administracio publikoen kontratueta rako arau orokorrak bete beharko dira.

2.— Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutuaren kontratazio-organoa zuzendaria da.

15. artikulua.— Aurrekontuaren aurreproiektua.

1.— Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutuak aurrekontu-aurreproiektu bat prestatu behar du urtero, hazienda arloan eskumena duen sailak adierazi-

Artículo 12.— Personal.

1.— Kontsumobide-Instituto Vasco de Consumo debe tener el personal laboral y funcionario necesario para su funcionamiento.

2.— El personal de Kontsumobide-Instituto Vasco de Consumo debe adscribirse a éste de conformidad con lo que establece la legislación sobre función pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

3.— En cualquier caso, los puestos de trabajo que comportan el ejercicio de potestades públicas se reservan a personal funcionario.

Artículo 13.— Recursos económicos.

1.— Para su funcionamiento, Kontsumobide-Instituto Vasco de Consumo cuenta con los recursos siguientes:

a) Las asignaciones que anualmente se establezcan a cargo de los presupuestos de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

b) Las aportaciones procedentes de fondos estatales o comunitarios destinados al cumplimiento de sus finalidades.

c) Las tasas y los demás ingresos públicos que legalmente se establezcan por su actividad.

d) Las subvenciones, aportaciones y donaciones otorgadas a su favor.

e) Los rendimientos de los bienes que le son adscritos y de los que adquiera en el ejercicio de sus funciones.

f) Las contraprestaciones que pueda percibir de convenios que celebre y por las actividades del instituto.

g) Cualquier otro recurso que le pueda corresponder de acuerdo con las disposiciones legales y reglamentarias.

2.— Los importes derivados de las sanciones en materia de disciplina de mercado y defensa de las personas consumidoras y usuarias deben destinarse íntegramente a actuaciones de defensa de las personas consumidoras y usuarias.

Artículo 14.— Régimen patrimonial y de contratación.

1.— El régimen patrimonial y de contratación de Kontsumobide-Instituto Vasco de Consumo se regirá con arreglo a lo establecido en la legislación vigente sobre el patrimonio de la Comunidad Autónoma de Euskadi y por las normas generales de contratación de las administraciones públicas.

2.— El órgano de contratación de Kontsumobide-Instituto Vasco de Consumo es el director o directora.

Artículo 15.— Anteproyecto de presupuesto.

1.— Kontsumobide-Instituto Vasco de Consumo debe elaborar anualmente un anteproyecto de presupuesto, con la estructura que señale el departamento com-

tako egitura jarraituz, eta kontsumo arloan eskuduna den sailari igorri behar dio, hark bere aurrekontu-aurreproiektauetan sar dezana.

2.– Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutuaren aurrekontu-araubidea Aurrekontu Erregimenari buruzko Legeak irailaren 27ko 1/1994 Legegintza Dekretuaren arabera ezartzen duena da.

16. artikulua.– Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutuko organoek emandako egintzen araubide juridikoa.

1.– Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutuko Zuzendaritzak emandako egintza administratiboen aurka gorako erre Kurtsoa jarri ahal izango da kontsumo-gaietan eskuduna den saileko sailburuaren aurrean, administrazio publikoen eta administrazio-procedura erkidearen araubide juridikoari buruzko legeriak ezarritako moduan eta epeetan.

2.– Institutuko Zuzendaritzaren azpitik dauden organoek eta lurralte-zerbitzuetako zuzendariekin emandako egintza administratiboen aurka, kontsumo-gaietan gauzatzen dituzten jarduerai dagokienet, gorako erre Kurtsoa jarri ahal izango da institutuko Zuzendaritzaren aurrean.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lebenengoa.– Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutuaren egitura-dekretua.

1.– 11. artikuluak ezartzen duenaren arabera, Jaurlaritzak, lege hau indarrean jarri eta sei hilabeteko epean, Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutua egituratzeko eta antolatzeko dekretua onetsi beharko du.

2.– Dekretua egiteko orduan, kontuan izango dira Kontsumoko Plan Estrategikotik eratorritako ondorioak eta gogoetak.

Bigarrena.– Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutuaren jardueren hasiera.

1.– Institutuaren egitura eta antolaketa arautzeko dekretua onartzen denean zehaztuko du Jaurlaritzak Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutua martxan noiz jarriko den eta jarduerak noiz hasiko dituen.

2.– Jardueren hasiera urteko aurrekontuen legea indarrean sartzearekin denboran bat ez badator, Gobernu Kontseiluak onetsiko du erakunde autonomoaren aurrekontua jarduerak hasten dituen ekitaldi ekonomikorako, eta horren berri emango dio Eusko Legebiltzarreko Ekonomia, Ogasun eta Aurrekontu Batzordeari hamabost eguneko epean. Hori dela eta, aurrekontuen esku mena duen sailari baimena ematen zaio beharrezko diren aurrekontu-aldaketak egiteko aipatutako aurrekontu hori eratzeko; alabaina, aldaketa horiek ezingo dute ekarri inolako gehikuntzarik erakunde autonomoaren jardueren hasieran indarrean zeuden aurrekontu orokoren partidetan kontsignatutako kopuru globalean.

petente en materia de hacienda, y debe remitirlo al departamento competente en materia de consumo, para que lo incorpore en su anteproyecto de presupuesto.

2.– El régimen presupuestario de Kontsumobide-Instituto Vasco de Consumo es el que establece la Ley de Régimen Presupuestario con arreglo al Decreto Legislativo 1/1994, de 27 de septiembre.

Artículo 16.– Régimen jurídico de los actos dictados por los órganos de Kontsumobide-Instituto Vasco de Consumo.

1.– Los actos de naturaleza administrativa dictados por la Dirección de Kontsumobide-Instituto Vasco de Consumo pueden ser objeto de recurso de alzada ante el titular del departamento competente en materia de consumo, en la forma y los plazos establecidos por la legislación sobre el régimen jurídico de las administraciones públicas y del procedimiento administrativo común.

2.– Los actos de naturaleza administrativa dictados por los órganos inferiores a la Dirección del instituto y por los directores de los servicios territoriales en cuanto a las actuaciones en materia de consumo, pueden ser objeto de recurso de alzada ante la Dirección del instituto.

DISPOSICIONES ADICIONALES

Primera.– Decreto de estructuración de Kontsumobide-Instituto Vasco de Consumo.

1.– De conformidad con lo que establece el artículo 11, el Gobierno debe aprobar, en el plazo de seis meses a contar desde la entrada en vigor de la presente ley, el decreto de estructura y organización de Kontsumobide-Instituto Vasco de Consumo.

2.– En la elaboración del decreto se tendrán en cuenta las conclusiones y reflexiones derivadas del Plan Estratégico de Consumo.

Segunda.– Inicio de actividades de Kontsumobide-Instituto Vasco de Consumo.

1.– La puesta en marcha e inicio de actividades de Kontsumobide-Instituto Vasco de Consumo se determinará por el Gobierno en el momento en el que se apruebe el decreto que regule su estructura y organización.

2.– En el supuesto de que el inicio de sus actividades no coincide con la entrada en vigor de la correspondiente ley de presupuestos, el Consejo de Gobierno aprobará el presupuesto del organismo autónomo correspondiente al ejercicio económico en que inicie sus actividades, y dará cuenta de ello a la Comisión de Economía, Hacienda y Presupuestos del Parlamento Vasco en el plazo de quince días. A tales efectos, se autoriza al departamento competente en materia de presupuestos a realizar las modificaciones presupuestarias que sean necesarias para la formación de dicho presupuesto, sin que puedan superar un incremento del importe global consignado en las partidas de los presupuestos generales vigentes al inicio de las actividades del organismo autónomo.

Hirugarrena.— Eginkizunak izendatzea eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorraren baliabideak eta ondasunak atxikitzea.

Gobernu Kontseiluak, dekretu bidez, egokitutako kontsumo arloko eskumena duen sailaren egitura organikoa, Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutoari beharrezko dituen eginkizunak eta giza baliabideak izendatzeko, lege honek eta legearen garapenerako xedapenek izendatzen dizkioten helburuak betetze aldera, eta horrez gainera, beharrezko dituen ondasunak eta bitarteko materialak atxikiko dizkio.

INDARGABETZE XEDAPENA

Indargabetuta geratzen da Kontsumitzaleen eta Erabiltzaileen Estatutuaren abenduaren 22ko 6/2003 Legearen 67. artikulua, eta orobat otsailaren 8ko 25/2005 Dekretua ere, Euskadiko Kontsumoko Koordinazio Batzordea arautzen duena.

AZKEN XEDAPENA

Lege hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean sartuko da indarrean.

Beraz, Lege honi men egiteko eta men eginarazteko agintzen diet, norbanako zein agintari direla, Euskadiko herritar guztiei.

Vitoria-Gasteiz, 2007ko uztailaren 5a.

Lehendakaria,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

4125

10/2007 LEGEA, ekainaren 29koa, Ahalmen Urrituentzako Laguntza Txakurrei buruzkoa.

Eusko Legebiltzarrak ondoko lege hau onartu dueña jakinarazten zaie Euskadiko herritar guztiei:

10/2007 Legea, ekainaren 29koa, Ahalmen Urrituentzako Laguntza Txakurrei buruzkoa.

ZIOEN AZALPENA

Euskal Herriko Autonomia Estatutuko 10.12 artikuluan Euskal Autonomia Erkidegoari gizarte-laguntzaren arloan ematen zaion eskumen esklusiboaren arabera onesten da lege hau. Halaber, kontuan hartu behar da Autonomia Erkidego Osorako Erakundeen eta Lurralte Historikoetako Foruzko Jardute Erakundeen arteko Legean lurralte historikoetako foru-organoei

Tercera.— Asignación de funciones y adscripción de medios y bienes de la Administración General de la Comunidad Autónoma.

El Consejo de Gobierno procederá mediante decreto a la adecuación de la estructura orgánica del departamento competente en materia de consumo, con el fin de asignar a Kontsumobide-Instituto Vasco de Consumo las funciones y medios personales necesarios para llevar a cabo los fines que la presente ley y sus disposiciones de desarrollo le encomiendan, así como a la adscripción de los bienes y medios materiales oportunos.

DISPOSICIÓN DEROGATORIA

Queda derogado el artículo 67 de la Ley 6/2003, de 22 de diciembre, de Estatuto de las Personas Consumidoras y Usuarias, así como el Decreto 25/2005, de 8 de febrero, por el que se regula la Comisión Coordinadora de Consumo de Euskadi.

DISPOSICIÓN FINAL

Esta ley entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Por consiguiente, ordeno a todos los ciudadanos y ciudadanas de Euskadi, particulares y autoridades, que la guarden y hagan guardarla.

Vitoria-Gasteiz, a 5 de julio de 2007.

El Lehendakari,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

4125

LEY 10/2007, de 29 de junio, sobre Perros de Asistencia para la Atención a Personas con Discapacidad.

Se hace saber a todos los ciudadanos y ciudadanas de Euskadi que el Parlamento Vasco ha aprobado la siguiente Ley:

Ley 10/2007, de 29 de junio, sobre Perros de Asistencia para la Atención a personas con Discapacidad.

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

La presente ley se aprueba en virtud de la competencia exclusiva que el artículo 10.12 del Estatuto de Autonomía del País Vasco atribuye a esta Comunidad Autónoma en materia de asistencia social. Asimismo, es preciso tener en cuenta que la Ley de Relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y los Órganos Forales de sus Territorios Históri-